

IL AZALPEN PROBA • <i>Motoa</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazen bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Igorri, halakoetan, asto-arrantza moduko bat irteten zitzaien eztairik, ezer taxuzkorik esateko ezgauza; ez *yes*, ez *not*. Ezerk baino lotsa handiagoa ematen zion hizkuntza xeble karkaxatsu hartan mintzatzeak. Ingeleseko irakaslea bere onetik irteten zen Igorren jarrerarekin, eta nota txarra jartzen zion; azkenean, mutilak, errekuazioen poderioz, gaingitzen zuen nolabait, bigarrenean ez bazen hirugarrenean, idatzizko proban asko saiatzen zen eta.

Motoa patinete bat baino leunago zetorren parkean behera, isiltasunaren erdian. Urrunean, autobidearen oihartzuna. Bat-batean, neska bat lasterka irten zitzaien parera, sastraka batzuen atzetik, eta Igorrek bizkor ibili behar izan zuen azpian ez harrapatzeko. Neskak oihu egin zien.

—Lagundu! Lagundu!

—Igor.

Ahots marrantatsua.

—Nik, Irene. Atzetik nituen mutil horiek nire nobioaren etsaiak-edo izango ziren –Igorren bizkarrezurrak dardar egin zuen *nobio* hitza entzutean—. Ez dut beste esplikaziorik. Inoiz ez nituen ikusi.

IL AZALPEN PROBA • <i>Motoa</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–IL lanean egin duzun bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

—Ez! irten zitzaion Igorri ahots marrantatsua.

—Zer esan duzu? Tira, egin jauzi, ez nago-eta txantxetarako.

—Ez! are ahots marrantatsuegoz.

—Ezetz? Ba, pottolaren atzetik lasterka has zaitezke segituan. Tira! Hiru buelta!

Une hartantxe, neska gizenxkak bere lasterraldia eten, eta oihu egin zuen:

—Ez!

Irakasleari aurpegia gorri-gorri jarri zitzaion, eta lepoko zaina puztu. Begiak betzuloetatik irteteko zorian zeuzkan, amorrus dizdik.

—Alde biok hemendik!

—Ez! erantzun zioten biek batera, indar berak hartu izan balitu bezala.

Gimnasiotik sutan irten zen irakaslea, eta Pilar ikasketa-burua lagun zuela itzuli zen.

—Zatozte nirekin agindu zien Pilarrek.

IL AZALPEN PROBA • <i>Motoa</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Igorrek berriro lanari ekin zion, eta arrebak hiztegi batekin jo zuen buruan, ez oso gogor. Igorrek beso ahula ja o eta eskuarekin ilea orraztu zuen, hautsa kentzen ari balitz bezala. Arreba, etsita, sukaldera itzuli zen, marmarrean.

Lana amaiturik, komuna garbitu zuen Igorrek . Aurrena pixa egin, gero lixiba bota, eta erreakzio kimikoari begira egon zen. Dena txukun-txukun utzi zuen, baita ispilua ere; ezin zituen eraman aitzak ispiluan uzten zituen hortzetako pastaren eta bizarra egiteko xaboiaren zipriztinak. Gogoratu zuen nola haserretzen zen garai batean ama kontu horrekin.

Lana amaiturik, dena jaso, eta egongelan eseri zen, telebista piztuta. Marinak haserre jarraitzen zuen; bazkaria prestaturik, egongelan sartu, besoak antxumatu, eta gauean hasitako errietari ekin zion berriro.

—Hik segi horrela, eta ikusiko duk. Zeinekin ibili haiz bart?

Igorrek burua alde batera eraman, telebistari begira jarraitzeko, eta bolumena igo zuen.